

"Nire akatsetako bat zera da: edozein tokitara joanda ere beti sagardoa eskatzea"

Gogoan dauka sagardoa lehen aldiz probatu zuen eguna. Lau urte omen zeuzkan orduko hartan. Izan ere, sagardogile-familia bateko ordezkari gazteena da bera. Eta ez hori bakarrik; Astigarragan lan horretan ari direnen artean adin txikiena duena era bada

JOSEBA IMAZ

ASTIGARRAGA. Igande gauetan eta astelehen eguerditan kenduta -irekita egoten ez delako-, gazte batek eraman du Astarbe sagardotegiko eguneroko martxa: 27 urte baino ez ditu eta Hur Astarbe du izena.

Nola definituko zenuke zure burua: sagardozale edo sagardogile?

Lehenendabizi, dudarik ez, sagardogilea naiz. Baina, noski, biak bata besteari lotuta daoz. Ez dut sagardogilerik ezagutzen sagardoa gustatzen ez zaionik. Kasu arraroa izango litzake, gero!

Familiatik jasotako ofizioa da zurea. Ezagutzen ditugun lehen datu historikoak 1563koak dira. Ordurako baserria existitzen zen. Sagardogintza, berriz, belaunaldiz belaunaldi igaro den zerbait da.

Txikitan kupel artean ibili zinen jolasan, beraz.

Arreba eta biok txiki-txikitatik ahal genuen horretan lagundu izan dugu sagardotegian.

Gogoan al daukazu noiz probatu zenuen lehen aldiz sagardoa?

Ez nago oso seguru. Hori bai, bada, kit nire arreba sagardoarekin bataiatu zutela. Elizako ospakizunaren ondoren sagardoarekin igurtzi omen zuen aitak, txantxetan edo.

Arrebarena gogoratu eta zurea ez? Ez dakit sinestu ala ez...

Ez nago ziur. Hori bai, gogoan daukat lau bat urterekin-edo Ergobiako festetan dantzan atera nintzela eta sari modura kopa bat eman zidatela. Etxera iritsi ginenean kopatik probatu nuen sagardoa.

Aste guztia sagardo artean pasata, bat ez al da nazkatzen?

Ikaragarri gustatzen zait. Nire akatsetako bat zera da: edozein tokitara joanda ere sagardoa eskatuko dut. Beti. Bazkari eta afarietan gorputzak eskatzen dit. Dena den, nahi dudun guztietan edateko aukera edukita, ez dut horrenbeste edaten. Noiz heldu zenion familiatik zetorren ofizioari?

Ez da gauetik goizera sortzen den

PROTAGONISTA

NORTASUN AGIRIA

- Adina. 27 urte.
- Jaioterria. Astigarraga.
- Ibilbidea. Sukaldaria. Astarbe sagardotegiko ardura darama.

GALDERA SORTA

- Txotxa ala sagardoa... "Biak".
- Sagardoa ala txakoliña... "Sagardoa, eta gero txakoliña".
- Mikatza ala gozoagoa... "Bukarra mikatz atsegin bat, aukeran".
- Bakallaoa ala txuleta... "Bakallaoa eta gero txuleta".
- Txotxerako: lagun arte lasaia ala jendetza... "Bietatik: lagun artean gustora egoten da bat, baina jendartearen lagun berriak egin daitezke".

kontua. Etxean ikusten zozan eran, denboraren poderioan, mundu horretan sartzen joaten zara, esku hartzen gehiago uzten dizute eta beti daukazu lagunduko dizun norbait alboan.

Sagardoaren munduan tradizioa eta negozioa dira nagusi. Zein lehenetsi behar da?

Tradizioa da, bai, baina baita negozioa ere. Garai batean, sagardoa baserriko lanetako bat zen, beste askoren artean. Tradizioa, mantendu beharreko zerbait da, baina aldi berean gauza asko dauzkagu ikasteko eta ikusteko, eta zabaltzeko ere bai. Sagardoak bide zabala du, hain alkohol gutxi edukita jendeari asko gustatzen zaiolako.

Betikotzat jotzen dugun ohituretako bat sagardotegian beti menu berdina zerbitzatzea da.

Hori aldatzen hasi gara. Postretarako, adibidez, mamia sagardo-gozokiarekin prestatzen hasi gara.

Gazteek freskotasuna eman al diezaioketuzue mundu honi?

Gazteak beti eman dezake ikuspegi berri bat. Eta gainera, gauza asko dago egiteko oraindik. Hemengo sagarrarekin aurrera egin beharra daukagu, sagarraren munduaz gehiago ikasi... Gazteok beste indar bat izaten dugu, eta hori behar da.


Gazte-jendearentzat erakargarria da txotx garaia.

Asteburutan etortzen dira gehienbat. Gainera, askotan ikusi izan dut, mutil eta neska koadrila bana bakoitza bere kasa etortzea eta azkeneko elkarrekin joatea. Ligatzeko modua ere bada.

Makina bat bikote ere sortuko zen zuen sagardotegian.

Hori ez dakit. Badakit ezagun batzuk, urtetan seimen bat eduki ezinik ibili zirenak, sagardotegira etorri eta emaztea haundun gelditu zela. **Gaztea izanagatik pasadizo bitxiren bat gertatuko zitzaizun lan horretan.**

Hilerraren ondoan daukagu sagardotegia. Behin koadrila bat guregana etorri eta zera esan zigun: "Sagardotegi baten bila gabilta. Hor ate bat ikusi eta joka ibili gara, baina inork ez digu erantzun". Kanposantuan deika aritu ziren. Eskerrak inork ez zien kasu egin; hildakoak altxatu bazituzten...



Hur Astarbe sagardotegiko kupeletako batetik txotx eginez. ARGAKZIA: IKER AZURMENDI

Dantzari esker, sagardoa diasporako euskaldunengandik hurbilago

ASTARBE SAGARDOATEGIAK
SAGARDOA ESPORTATZEARI
EKIN DIO, AEB-ETAKO EUSKAL
KOMUNITATEAK PROBATU DEZAN

ASTIGARRAGA. Modu berezi batean hasi zen guztia. Familiako sagardotegiaren ardura daraman Hur Astarbek beti izan ditu gustuko euskal dantzak. Astigarragako dantzarien artean aritu zen garai batean, eta Añorgako Arkaitz dantza-taldeko partaide da gaur egun. "Taide horrekin AEB-etara joan ginen, Idaho estatura. Han, horrelakoetan normala izaten den beza-

la, jende asko ezagutu genuen", azaldu du sagardogile gazteak. Diasporako euskaldunek ba omen dakite hemen zer gertatzen den, Euskal Herrian zein joera dauden, eta sagardoaren berri ere badaukate.

Astarberen hitzetan, bere akatsetako bat edozein tokitara joan eta sagardoa eskatzea da. Idahon ere topatuko zuelakoan zegoen. "Eskatu eta eskatu, eta inon ez zeukaten. Hori ikusita, esan nuen: zer edo zer egin beharko dugu hona sagardoa ekartzeko. Haiek, berriz, zera erantzuten zidaten: zai gaude ea noiz ekartzen dezu. Eta sagardogilea nintzela esan nienean

bidaltzeko eskatu zidaten", gogoratu du Astarbek.

Horrela hasi zen lehen aldiz sagardoa esportatzeko ideari bueltak ematen. Esan eta egin. Lehengo astean bertan bidaltzekoak ziren lehen eskaerak Idaho aldera. Oraingo, bi kutxa esportatuko dituzte. Astarbek "funtzionatu dezakeela" uste du, hango jendea ezagutu duelako eta "desiatzen" daudelako sagardoa edukitzeko.

"Oraingo, honekin hasiko gara eta nola funtzionatzen duen ikusi beharko dugu", adierazi du adi-tuak. Hortik aurrera, baliteke beste merkatu batzutan atea jo ahal izatea. J. IMAZ

ESALDIAK

"Ez dut sagardogilerik ezagutzen sagardoa gustatzen ez zaionik. Arraroa litzake, gero!"

"Tradizioa mantendu behar da, baina aldi berean asko daukagu ikusteko eta ikasteko"